



21/2018, urriaren 16koa

EBAZPENA

Giza Baliabide eta Administrazio Kudeaketa Zerbitzua

Ebazpena, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakundean, administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, karrerako funtzionario sartzeko deialdirako onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena.

Lehendakaritzaren 4/2018 ebazpenak, otsailaren 6koak, administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, karrerako funtzionario sartzeko oinarriak onartu zituen

Oinarri horietan ezarritakoa betetzeko, 2018ko martxoaren 19ko 24:00etara arte ezarri zen lehiaketarako eskaerak aurkezteko epea (ordutegi ofizialaren arabera).

Epea amaituta eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoa betetzeko, deialdiko onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu da, baztertzearen arrazoia adierazita; horrekin batera, ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko zer hautu egin den ere ageri dira.

Hala, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena. Deialdi honetako onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea.

Bigarrena. Ebazpen hau Interneteko www.araba.eus/PortalEmpleo web orrian argitara dadin, baztertzearen arrazoia eta, horrekin batera, ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko zer hautu egin den ere adierazita.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka, erreklamazioa jarri ahalko da ebazpena web orri horretan argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bost egun balioduneko epean, deialdian aurreikusitakoaren arabera.



Gasteizen, 2018ko urriaren 16ean.

María Pilar García de Salazar Olano
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren presidentea



Francisco Javier Carro Iglesias
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren zuzendari kudeatzailea



IRAGARKIA
BARNE SUSTAPENA
INSPEKTOREA (ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOA)
ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAA

1.- ONARTUAK.

NAN	ABIZENAK	IZENA	AZTERKETAKO HIZKUNTZA	EUSKARA PROBA
16**0**9K	REI	JAV	GAZTELANIA	EZ

2.- BAZTERTUAK.

NAN	ABIZENAK	IZENA	BAZTERTZE-ARRAZOIA
16**4**6P	LAN	JUA	ERAKUNDE AUTONOMOKO FUNTZIONARIO EZ IZATEA

